

Bi legealdi eman ditu EAJak EAEko hezkuntza sistema kudeatzen eta ezin dezakegu esan hobera egin duenik. EAJ ez da gai izan gure hezkuntza sistemak aspalditik zekartzan arazo nagusiei aurre egiteko eta, aldiz, inoiz baino konfrontazio eta tentsio gehiago bizi izan ditugu. Halaber, egon diren aurrera pausu nagusiak, sindikatu eta eragileen ekimenez abiatutako konfrontazioen ondoren etorri dira.

Cristina Uriarte buru duen Hezkuntza Sailak aldebakarrez eta modu ilunean jokatu du legealdi osoan zehar. Jokabide hau agerian geratu da eta areagotu da azken hilabete hauetan bitzako salbuespeneko egoeran. Langileen ordezkariekin akordioak greba dinamika gogorren ondoren heldu dira eta gainontzeko eragileek, guraso zein ikasleek, une oro erakutsi dute beraien haserrea Hezkuntza Sail honekin.

EAJren norabide neoliberalak hezkuntzarekin lotutako jendarte mugimentuak berpiztu ditu. Asko izan dira eskola publikoaren alde sortutako plataformak eta ekimenak eta STEILASek bere poza adierazi nahi du aurkeztu berri den Eskola Publikoaren aldeko Topagunearekin. Ikastetxe pribatuekin klientelismo politikak oinarri, privatizazioa eta segregazio politikak izan dira EAJren hezkuntza kudeatzeko elementu nagusiak. Aldiz, Cristina Uriarteren ibilbidea denboran luzea izan bada ere hamaika arazoei muzin gitea erabaki du.

- **0-3 zikloa.** Etapa honek sakoneko eta berehalako berrantolaketa behar du. Eskaintza unibertsala, doakoa, eta beraz, publikoa izan behar da. Administrazioaren eskaintza privatizatua, dibertsifikatuegia eta kontrolgabekoa da.
- **Ikasleen onarpen prozesua.** 2018ko ikasleen onarpenerako dekretuak ez du ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen, bere zehaztasun faltak ikastetxe pribatuei babes legala ematen die ikasleak aukeratzeko jarraitzeko. Ikasleen onarpen prozesua ezin da hezkuntza enpresa pribatuen esku egon.
- **Sare publikoko langileen behin behinekotasuna.** Gaurko sarbide ereduak behin behinekotasun tasa handia bere horretan mantzentzea ahalbideratzen du.
- **Segregazioa.** Azken urtetan gora egin du jatorriagatik edota egoera sozioekonomikoagatik gertatzen den segregaziok.
- **Eredu linguistikoak.** Gai honekiko hezkuntza eragileon adostasuna zabala bada ere, EAJak murgiltze sistema indartu eta euskaren presentzia areagotu beharrean, hizkuntza politika sistema desarautzeko erabili du.
- **Sistemaren bateratzea.** Ikasle guztien aukera berdintasuna bermatu eta privatizazio dinamikak eten beharrean, gobernuak sistema lehiakor bat sustatu du eskaera eta eskaintzan oinarritutako merkatu arauak hezkuntzara ekarriz. Joko arau horiek aplikatu ahal izateko merkatu librean oinarritutako "familien ikastetxea aukeratzeko" paradigma neoliberalak hezkuntza politiken oinarrian ipini du EAJak.
- **Negoiazio kolektiboa.** Oso larria da EAJren eskuetan dagoen Hezkuntza Sailak bere langileekiko eta hauen ordezkariok garenekiko erakusten duen begirune eza. Irakasleak, heziketa bereziko hezitzaileak eta Haurreskoletako langileen oinarritzko eskubideak ez dira bermatzen. Ezinbestekoa da kolektibo hauetan Negoiazio kolektiboa berrabiaraztea.

- **2018ko akordioa.** Hezkuntza Publikoko irakasleok sinatu genuen akordio hura garatu gabe geratu da.
- **Sare publikoko langileen erretiro baldintzak.** Langileen arteko talka ahalbidetzen duen ikaragarritzko arrakala dago gai honekiko, baina gobernu honek ez dio egoera honi aurre egin nahi izan.
- **Ikastetxeen autonomia.** Ikastetxeek autonomia behar dute, eta horrek, halaber, administrazioaren pixua handitzea dakar logika gerentzian erori ez gaitzen. Autonomia ezin da desarautze politikak aplikatzeko erabili.
- **Burokrazia.** Ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeak gero eta itoago dabilta. Administrazioak, sarritan langileak kudeatzeko "autonomiaren" argudioa erabiliz lan zama ikaragarria bideratu du ikastetxeetara. Langileen kudeaketa administrazioaren esku egon behar da, zuzendariak ez baitira gerenteak.
- **Pribatuko langileen kontratazioa.** Azken aste hauetan agerian geratu da sare pribatuko kontratazio ereduaren kutsu endogamikoa. Diru publikoz hornitutako ikastetxe guztien kontratazioa administrazioaren kontrolpean egon behar da
- **Hezkidetzaren planak.** Feminismoaren bidetik berdintasunaren alde lan egiteko egonkorrak eta eraginkorrek diren planak bideratu beharko lituzke Hezkuntza Sailak. Hauek gauzatzeko formakuntza duten langile egonkorren presentzia ez badago plan hauek aurpegia zuzentzeko tresna soilak bilakatu daitezke.

Beraz, erronka ugari ditu Hezkuntza Saila kudeatuko duen hurrengo gobernuak, EAJ-PSE tamdemak porrot egin baitu nabarmen. Eskola publikoa hezkuntza sistemaren ardatz bihurtzeko orduan STEILASEk ezkerreko koalizio baten beharra ikusten du ezinbestean. Edonola ere, hezkuntza kudeatuko lukeen ezkerreko gobernu horrek ez luke nahikoa izango asmo onak adieraztearekin. Publikoa, euskalduna eta hezkuntza sistema propioa sustatzeko hitzetik ekintzetara pasatu beharko luke. Benetako alternatiba izan nahiko badu, orain arte ezkerreko alderdiek erakutsitakoa baino konpromiso garbiago eta irmoagoa beharko du, aukera berdintasuna bermatu eta ikasle guztientzat euskara ardatz duen hezkuntza sistema propioa garatzeko.

Bide horretan hezkuntza publikoa erreferente dugun hezkuntza eragileekin elkarlanean aritu beharko litzateke; haien proposamenak aintzat hartu, partekatu eta akordioetara heldu. STEILAS bidelagun izango du horretan, eta hauteskunderen atarian zenbait proposamen plazaratzen ditugu.

Pribatizazio dinamikak eten eta sare publiko bakarrera bidea eraikitzea helburu duen hezkuntza politika garatu behar dira, soilik horrela izango baitu hezkuntzak dagokion funtzioa gizarte kohesionatzaile gisa. Denona eta denontzat den sare bakar bat behar dugu, eta horretarako diru funts iraunkor bat ezinbestekoa da. Hori horrela, azken hamarkadan eman den zerbitzu publikoen desegiteari aurre egiteko eskola publikorako finantziaketa lege bat eskatzen dugu. Gure gizartean zorionez gero eta handiagoa den aniztasunari erantzun ahal izateko baliabideak behar dira,

Premiazkoa da administrazio publikoko langileen lan baldintzak babestuko dituen gobernu bat. Besteak beste, interinitate tasa jaisteko sarbide bikoitzaren eredu defendatuko duena, hau baita lanean ari diren langileen eskubideak babestu eta hautagai berriei lan aukerak zabaltzen dizkien bakarra. Langile guztien erretiro baldintzak berdinduko dituen



www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu

proposamen bat ere behar dugu, zeinean langileak progresiboki erretiratu ahalko diren plantilak gazteberritzen diren aldi berean. Eta orokorrean, langileen lan baldintza beraien ordezkariak garen sindikatuekin negoziatuko duen gobernu bat behar dugu nahitaez.

El PNV ha estado dos legislaturas gestionando el sistema educativo vasco y no podemos decir que éste haya mejorado. El PNV no ha sido capaz de hacer frente a los principales problemas que nuestro sistema educativo arrastraba desde hace tiempo y, en cambio, hemos vivido más confrontación y tensión que nunca. Asimismo, los principales pasos que ha habido han venido tras las confrontaciones iniciadas a iniciativa de sindicatos y otros agentes educativos.



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus